



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 11 Urtea || 1929'ko Neguila || 132 Zenbakia. || :—

Prantzisko Xabier Deuna



Mixioen bitartez Indiako efiak irabazten dizkio Jainkoari

RUÑAKO Eliz-baútiko Xabier deritzaion eñian jaio zan Prantzisko Xabier deuna. Oso aberatsak eta izen aundiakoak izan ziran bere gurasoak. Gazterik utzi zuan bere sortefia eta atzefira abiaturik, eldu zan Parisera bere ikasgaiak egitera. Emen ezagutu zuan Loiolako Iñaki deuna eta laixter bere adiskide eta ikaslea egin zan. Afezkero bizitza latz-gogoña egin zuan eta bereala gai egin da, gertu zan Xabiefentzat Jainkoak aukeratu zuan mixioen lanbidetarako.

Aita Santuak misiolari egiten du.

Portugaleko mende ziran garai artan Indiafak eta nola kristau zintzoa eta jainkotsua zan aldi artan zan eñege III Joan, Jesusen Lagundiko anai batzuk eskatu zizkion Aita Santuari, anima gaixo aiei zeruko bidea erakusteko.

Aita Santuak Iñaki deunaren iritzia aditu ondoren, Prantzisko Xabier aukeratu zuen lanbide gogor artarako, eta Aita Santuaren Ordezkoak zituan eskubide guztiak eman zizkion. Gure deuna eñizefi ibili izan zan, beti oñez eta geienetan oñutsik. Japonera eraman zuan gure siñismena eta gero Indiako beste eñialde askotan mixioak

egiñaz, eun mila asko irabazi zizkion Jainkoari. Onela itz egiten du gure deunaz eliz-gizonak egunero esan bear degun otoitz-liburuak (Brev.)

**Agurtu ezazute zuen Jauna, aundia
izan da guganako bere maitetasuna ta : : :**

Orain argi eta garbi ikusiko dezu zein egoki Eliza gure Amak Xabieren mezako *introitoan* dakarren 118 salmoko zatitxo ura: «Zure ikasbide eta agindu santuak zabaldu ditut eta efregeen aurrean ere erakutsiko ditut bildur eta lotsarik gabe.» Eta egin zituan gauza miragafiak gogoan arturik, 116 salmoaren asiera ipintzen dio zerbait geroxago: «Agurtu ezazute zuen Jainkoa efi guziok, alik aundienak izan dira guganako bere maitetasuna eta ongi naia ta (Introito).

Jesukristok gurutzean gure zofak ordaindu eta ontasun asko irabazi zizkigun, baña oiek iristeko gai eta gertu bear da biotza, bere ikasbidea siñistuaz. Ofetarako aukeratu zuan Xabier deuna, bere bi-tartez gauza miragafiak egiñik, ilunpean bizi ziran siñesgabeko efi gaixoak egizko argitasunera ekafi zitzan.

Ikasgai eta erakutsi ederañak

Nere anai maiteak, dio Pablo deunak Xabieren mezan esaten dan epistolan, grazia eta bide zuzenera etortzeko, lenbizi siñetsi egin bear da, zeruratzeko befiz beaferzko gauza da siñesmen oriagirian aitortzea.

Jesus gure Jauna berpiztu zala siñesteko, nai ta naiez aufetik bear degu biotz bafuan siñistu. Eta agirian siñesmen ori agertzea, gure bafengo siñesmenaren aitortzea besterik ezta. Siñesmen ori gizon guztiak iritxi dezakete, guztiei deitzen bai-die gure Jainkoak.

Nola eřegutu siñesten ez duten Jaunari?

Nola, galdetzen du Pablo ber-berak, eřegutuko diote Jaunari aufetik siñesmena bear badu, siñisteko befiz lenago ezagutu izan bear du, ezagutzeko ordea norbaitek itz egin bear ez die aien egiak aditzeko? «Baña nola eřegutuko diote siñisten ez duten Jaunari? Nola aditu ordea, beren befirik eman dezakenik ezpada?» (Epist.) Emen agertzen da, zein doai aundia dan mixiolarien deia Jainkoak mundua zeruratzeko eratu duan bidean. Dei gozo eta atsegin ori aditu eta ofi erantzun zion Xabier santuak.

Anima batzuek deitzen ote ditu Jainkoak?

Beraz mixiolari izateko eta Jaunaren Ebangelioa zabaltzeko beaferzkoa da Jainkoaren dei eta doai berezi bat? Bai, erantzuten du bereala Pablo santuak, lenagotik Isaiasek esan zuana gogora ekafirik: «Eta nola zabalduko dute mixiolariak ebangelioa, artarako ezpaditu

Jainkoak bialtzen? Ofegatikan idatzita dago: Zorionekoak, pakea eta egizko ontasunak azaltzen dituztenak! Beren abotsa lur guztian aditu izan da etaberenitzak munduko bazter guztietaraño eldu dira. (Epistol.)

II

Xabieren miragariak Jaunarentzat ekartzen ditu Indiako eriak

Gizonen atzitzale

«Zatozte nere ondotik, esan zien Jesusek bere ikasleai, eta nik gizonen atzitzale biurtu eta egingo zaituztet.» Eta aiek itxasoko tresnak utzirik Jaunari jafaitu zioten. Auxe bera egin zuan gure santuak, Jesusen ikasleen antzera. Maisuaren deia aditu zuaneko dena utzi zuan, Jaunak ordea gizonen atzitzale egin zuan eta bere arantza guztiz miragaria izan zan.

Jesukristok azia zabaltzen du munduan mixiolarien bitartez

«Zoazte mundu gutira eta izaki guztiei esan eta azaldu zaiezute nere ebangelioa. Siñetsi eta bataiatzen dana zeruratuko da, siñesten ez tuena, ordea, galduko da.» (Evang.) Izaki guzti oiek siñesgabeko efiak dira, Gregorio Santuak dionez. Ebangelioa zabaltzerabialtzen dituanian ikasleak Jesukristok, ez ote da ori



azi batzuk munduan erein eta zabaltzea? Ale batzuk ereiten ditu munduko soro aundi onetan, ondore ugari artuko duen ustean. Ainbeste anima Jainkoagana itzuliko ote lirake, ezpalitu Berak gizonen artean, azi ona bezela, mixiolariak sortueraziko?

Sinesten dutenei jafaituko dizkien sendagaiak

Auek dira, dio Jesukristok, siñetsi dutenei jafaituko dizkien sendagaiak: «Nere izenian iraziko (botako) dituzte deabruak, izkuntza befiak mintzatuko (itz egingo) dituzte, erabiliko dituzte sugeak eta zerbait iltzeko edari edaten badute ere, ez lieke kalterik egingo, erien gañean ezafiko dituzte eskuak eta osasunera biurtuko dira.» (Evang.) Ez ote zan auxe gertatu gure santuarekin?...

Gauza ikus eta miragariak egiten.

Eldu zaneke Espiritu Santuaz beterik, onek erakusten zion nefian izkuntza askotan mintzatu edo itz egiten zuan.

Askotan izkuntza batean itz egiñik efi batean, nork bere jaiotefi-ko izkuntza aditzen zion. (Brev.) Gure siñesmena zabaltzen ziarduen bitartean gauza miragafiak egin zituan Jainkoak bere bitartez.

Itsu bateri begiari argitu zizkion. Gurutze bat egin da itxasoko ur gazia ur gozo bihurtu zuan, 500 gizonen egafia asetzeko naikoa: ur onek eri asko sendatu eta gaizkiñak bota zituan.

Il asko piztu zituan: egun osoa zeraman ilik eta lurperatutako bateri ots aundi batekin deitu zion eta berealaxe obitik atera zan. Beste aldi batean bilagun zeramazkiten lurperatzerazealdobatean eta geldituerazi ondoren bizirik itzuli zizkien beren gurasoei.

Zeru-argiaz betea etorkizun askoren befia eman zuan.

Mixiolarien Zaindari eta Nagusi

Azkenian onbidez beterik eta ainbeste lan egin ondoren Jainkoaren alde, artu zuan zerutik bere saria eta Sancian deitzen dan ugartean il zan. Il da gero ere afigafizko miragafiak egin zituan eta mesede asko iritzi izan zuten bere bitartez; ofegatikan XV Gregorio Aita Santuak aldareetan agurtzeko jafi zuan.

X Piok «Propaganda Fide» deitzen dan batzafaren eta siñismena zabaltzeko egiten diran lanbide guztien zaindari eta nagusi egin zuan. (Brev.)

Eskaera eta erabakia

Xabiefen goraipe naz apaizak eskeintzen dizkizuten mezak garbitu ditzala gure gorputza eta animak. (Secreta)-Xabiefen bitartez eskatuko diot Jainkoari mixiolari santuak piztu eta sortuerazi ditzala bere Elizan.

Tolosar Marzelino Aba.

O. M. Cap.

JESUS TXIKIYARI

(Maria ta neska)

Neskak

Ostuak aizez-aize,
dabiltzen onduan
pilpil dijoan efekain
uren bazterian.
usai gozozko lafe
xabal baten pian,
antxen ikusi nuen

zegola itzalian
Jesus Añfaren Ama,
Amatxo maitia,
ofaxtatzen ai zala
buruko ilia:
ziñez etzala ilia,
baizikan ufia;
bada ile bakoitzetik
zerion argia.

Maria

Atoz, urbildu zaitez,
 arima maitia,
 benetan maitatzen det
 nik zure fedia:
 eskeintzatxo bat egin
 nexko txit garbia,
 t'irikiko dizut nik
 zeruko ataria.

Neskak

Amatxo ¿nun daukazu
 Zuk zere Semia,
 zerutik etofi dan
 gure mesedia?
 Berak sutu dezala
 nere su bixia,
 biotzak ikas dezan
 zeruko bidia.

Mariak

Or, goiko muñotxoan,
 toki egokian,
 lore polit batzuen,
 afosa tartian,
 or daukat lotan lotan
 nik nere Semia,
 biotzeko kutuna,
 biotzain bizia.
 Begiak ditu beltzak,
 ufezko iliak,
 aoa txit edefa,
 txuria aurpegia;
 maite ez duenak ori
 al duen guztia,
 zer maitatu lezake
 bere biotzian?
 Bere ondotik dabiltz
 zeruko aingeruak,
 t'estaltzen dute lore
 usai gozozkoaz.
 Agur egin zioten
 soroko loriak,
 jantzirik ikusteko
 soñeko befiak.
 Dinpilinpauxak ere
 elur ain txuriak
 arontz-onontz dabilta

lorien tartian.
 Zuregatik bakafik
 zerutik lufera
 jetxi da nere Jesus
 gizon egitera.
 Orain ba, nere maite,
 atoz ikustera
 ta biok apa bana
 guaz ematera.

(Neskak Jesusen aurian)

Nere Nini txikia,
 maitez maitatua,
 usai gozozko lore
 zabal zabaldia:
 Begiratu zadazu,
 Nini maitatua,
 afosa bezelaxe
 or ezkutatua.

Zuk begitxo oiekin,
 nere Ninitxua,
 begiratzen ba nauzu
 nitaz oroitua,
 nere biotza azkar
 maitez ain sutua,
 utziko duzu dana
 zureganatua.

Atoz, xulufin gofi,
 zerutik jetxia,
 atoz, maitezko lore,
 Jaungoiko txikia:
 atoz biotzetara,
 begiko ninia,
 ikutu biotza ta
 artzazu guztia.

Atoz, Nini maitea,
 ementxen naukazu:
 zere besotxoetan
 estutu nazazu:
 nere amets gozoa
 izango zera Zu:
 besarkatu gaitezen
 betiko ni ta Zu.

Begi-Beltx



RANCAGUA'ko Gotzaia aldare aurfear

Euskaldun Kaputxinoak Ameriketari.

Lenengo Kaputxino Apaiztegia Txilen—

Gure Kondairaz zerbait—Zenbat etxe dauzkagun eta zenbat Apaiz-Anai geran—Langile beara—Apaiztegi berriak Arjentinan eta Txilen—Txileko Kaputxino-Apaiztegi onafaren onespina—Lanak asi dire—Jaunak laguntzen digu—Gure ongile onenak euskal-abi-zenekoa.

«ZERUKO ARGIA» aldizkingi onek berak joan den Otsailko zenbakian Altsasun dagon Kaputxino Apaiztegiar itz egiten zigun. Bertan ondo agiri zan Asistatzen Euskaleriko azitegi ortan azkeneko ogeitabost urte auetan sortutako landareak nola ugaritu ta zabaldu diran larteri guzietan, Ozeanian, Asian, Ameriketari...

Gaur esan dezakegu Apaiztegi oren kondaira ederak beste orialde bat ondo bete duela.

Alderdi auetan antzinetik baziren Kaputxinoak, baño euskaldunak. Gure lenbiziko Misiolariak 1902-ean etori ziren. Geroztik urtero-urtero sailka iristen dire Jaunaren langile berriak.—Arjentinan 4 eta Txilen 5 etxe ditugu eta etxe oietan sakabanaturik 57 Apaiz eta 36 anai bizi gera, bi kendu ezkeror beste guziak euskaldunak.

Naiz Euskaleritik ainbeste Misiolari etori, ala ere Misiolari bear aundia dago naiz Arjentinan naiz Txilen: bertako apaizak oso gutxi baidire, lantegia beriz oso zabala. Ofengatik, Aita Sainduaren otsa entzunaz bertakoen artean Kaputxino Apaizak sortutzeko asmoa artu da.

Igaro den Orilan 8 Arjentinari eta 8 Txiletarakin iriki zan Buenos Aires'en lenbiziko Kaputxino Apaiztegia. Il onen 8-an beriz ipini zen

Txilen beste Kaputxino Apaiztegi beri bat jasotzeko lenbiziko oñ-aria.

Leku oso egokia aukeratu da. Sur aldera dijoan burni-bidearen geditokia aldamanean dauka, ariz jositako bide zabal edera etxe aurretik igarotzen da; Santiago uri nagusitik ordu batera ta Rancagua uritik orduterdira arkitzen da. Baruti, soro, baratze ugariz inguraturik egongo da; alde batetik Paine eriak eta bestetik Andes mendi bikañen tontor txuriak inguratuko dute.


Lenbiziko ari ipintzerako kristau talde aundia bildu zen: Buin, Hospital, Linderos, Aculeo, Huelcan eta bete inguruetako eriakustu ziren; Santiago uritik beriz sugurdi berezi bat bete-betea joan zen. Rancaguako Gotzai den Lira Jaunak lenbiziko aria bedeinkatu ondorean itzaldi samur baten bidez agertu zigun apaiztegi berriaren beara ta etorkizun edera.

Etxea jasotzeko lanak bereala asi dire, datoñen urtean ikastolak irikitzeko asmoz. Asmo ori Jaunaren gogokoa dela ondo agiri da, sortutzen dizkigun ereztasunai begiratu ezkeror. Toki berean 20.000-tik gora bildu zen etxe beria jasotzeko; gañera Gotzai askok agertu digute, al duten era guziz guri laguntzeko asmo sendoa.

Eizagire, Erázuriz, Etxeberia, Etxanike, Egiguren, Larain Braun, Irarazabal eta bete euskel-abizena duten gure ongile eskuzabalen izenak Paineke Kaputxinoen Apaizetxe oñen izenarekin batean biziko dira betiko.

Otermin

Txileko Santiago'tik 1929-IX-9—




Lenengo aria bedeinkatzen

Ongi-etorri

(Choral: *Ich freue mich in dir*)

J. S. Bach.


On - gi e - to - ri - - - a, Je - sus, gure ar - - - te - - ra
Zu za - toz lu - - fe - - ra Gu - re - tza ti - - za - - te - - ra



A - - nai ta a - dis - - ki - - de. Ze - ru - - ta - fak dau - de po - -




zez i - - kus - te - - - an Zu gu - - re ar - - te - - an.



Bere anditasuna
Oso ezerezturik
Eldu da gugana
Aragiz estalirik.



Oi zein apaldua
Goiko Jaun altsua!
Gure antzekoa
Egin da Jainkoa.



Arateko Andra Mari

Gauza eder asko ditu gure Euskalefi maiteak: mendi goiak, ibar sakonak, baso beltzak, zelai garbiak, itxaso bazter zoragarria; uri aundiak, efi koskoñak, basefi-etxe zuriak... Baiñan badu beste zerbait nere biotzari ikutu samuragoa

egiten diona: mendi-tontor goienetan Gurutze Deuna eta beraxeago Andra Marien eliza txikia. Aitzgofi, Ernio..., Lafaitz, Kizkitza,... Gipuzkoan beintzat ez dira erri asko, ango edo emengo gainean Andre Mariaren eliza txikiren bat ez dutenik.

Zergatik ote da ofen mendigoizalea gure Andra Mari maite-zoragaria? Truebak Afateko Andra Mariz esan zuan bezela,

Zeruko gure Ama
Igo da mendira
Obeki bedeinkatzeko
Euskaldun guziak.

* * * * *

Gure mendi ta muñoetako Andra Marietan zafenetakoa eta, Lafañaga P. jaun argiak dionez, Euskalefiko Andra Marien artean euskaldunena, Eibarko Afateko Andra Mari da.

Beste Andra Mari askoenaren antzekoa da bere agerkera: Artzai bat lo zegoen bere txabolan eta argitasun bizi-biziak esnatu zuan. Eta atzafi zalarik, zeruko gure Ama, Andra Mari ikusi zuan. Andra Marik itz egin zion eta toki artan bere izeneko elizatzko bat egitea nai zuala esan zion; inguramariko kristau guziei andik lagundu nai ziela ta.

Artzaiak agerkera ofen beria inguruetako basefitañai eman zien eta aiek goratu zuten Afateko Andra Mari'ren lenengo elizatzkoa. Beroñen aditzea Gipuzkoa guzian bañeatu zan; baita Bizkaian, Araban eta Napañan ere; eta alde guzietatik asi kristauak Afatera joaten, beren eskariak Andra Mariri egitera.

* * * * *

Afateko Andra Marik badu beste ederkun bat guziz maitagaria. Sorkunde Garbiaren izena eman zitzairen, irudietan lenen-lenenetakoa da irudi zoragari ori Euskaleñan eta ludi guzian ere bai. Ofegatik Afateko jaia Neguñaren zortzian izaten zan garai batean; eta gero garai ortan eguraldi txafa egin oi dualako, Agorñaren zortzira aldatu zan.

* * * * *

Eibartarak guziz maite dute beren Afateko Andra Mari. Eta orain bertan ageri-agerian erakutsi dute beren maitetasun kartsua. Azilaren iruan izugarizko jai edefa egin zan Eibaren. An zan gure Gotzai maitagari, Muxika ta Ufesarazu Mateo jaun guziz agurgaria, Aita Santuaren Ordezkaritzat etofia; an ziran Gipuzkoako nagusiak, an zan Aldundia oso-osorik; eta miñaka bildu ziran kristauak alde guzietatik.

Eibartarak koroï beñ guziz edefa egin diote beren Afateko Amari eta koroï eder ori mundu guziaren afean eta eliz-arauz jantzi nai izan diote. Eta ala, Aita Santuaren Ordezkarï eta gure Gotzai jaun guziz maiteak eriko enparantza nagusian, bost miña ta geiago kristauen afean, jantzi zion koroï ikusgari ori.

«Afateko Ama lastana,
Etzaitez gurekin aitzu;
Jesus maitea ikusi deigun
Zeruan danok egizu».

Ataungo Bonifazio A.

O. S. F. C.

BULDA SANTUA



GAZKO Agoztuaren amabostean eman 'zuan Aita Santuak España eta España'ko Agintzapeko lufaldetan bizi geran guziori dagokigun agiri edefa.

Bulda beña, bere eskubide guziakin agertzen duen agiria da.

Agiri ontan esaten zaigunaz España'ko agintzapean bizi diran guziok artu dezazkegu, berortan erakusten zaizkigun berexkuntzak.

Berdin da bertakoak izatea edo ez izatea. Prantziak edo Amerikak ere, gure artean dagonean Bulda arturik, bereganatuko ditu berexkuntza oiek, bertan jaiok bezalaxe, Bulda oiek artuz gero.

España'ko eta España'ko agintzapean bizi geran guziok, naiz atzefietara edo afortz efietara joan, Bulda oiek arturik ba-gaude, baru ta aragi-uzteko egunetan geren alderdiko legez barutu ta aragia utzi dezakegu; iñori gaizta-biderik edo eskandalorik ez ematekoz.

Buldak noiztik noizera balio digu?

Bulda beñiaren eskubideak balio digute Bulda elizan agertzen dan afe-ko egunetik asi ta agertu zaneke urtea bete ta ilabete geroraño.

Bulda Santua Abenduaren lenengo igandean agertzen da elizan. Aurten orde Abenduaren lendabiziko eguna da lenengo igande. Geroztik aurtengo Buldak ematen dizkigun eskubideak izango ditugu aurtengo Azaroaren azkeneko egunetik asi ta mila bederatzitan eun eta ogeita amaika gañeneko (1931) lenengo eguneraño. Onela urte bakoitzeko Buldak urte batez, ilabete ta egun bat geiagor balio du. Ori egiten du Aita Santuak, kristaurik zaba-fenak ere naiko beta izan dezaten Bulda beña artzeko ta egun bat bakafez ez ditezen bera gabe egon.

¿Bulda Santuaren eskubidez baliatzeko zer bear da?

Bulda Santuaren eskubide guziak datozkizu, (bestarik ezpadizut esaten bakoitzaz itzegitean), ofen limosna emanaz artzen dezunetik. Eta bulda artzen duenak eztu artan bere izena ezafi beafik; ezta ere Bulda Santua gorde edo nork berekin eraman beafik.

¿Bulda Santuaren limosna zertarako da?

Bulda santuaren limosnaz egiten dira ufengo urteko Bulda beñiak; be-roiekin eralgitzen dena ordaintzeko bear denaz gañerakoa eliza beartsuei la-guntzeko ta beartsuei edo pobreaki ongi egiteko izaten da Bulda santuaren bidez biltzen dan guzia.

¿Nork artu bear du Bulda santua?

Bulda bat baño geiago ba-dela esan bear dizugu goiko galde oni zuzen erantzutekoz. *Baru ta aragiaren Bulda* beartsuak ez beste guziak artu bear dute. Beste Buldak beriz beartsuak edo berdin dana, Bulda oiek damazkiguten (ematen dizkiguten) eskubidetaz aberastu nai duten guziak. Eta *Baru ta aragiaren Bulda* alpefikakoa du, *Kruzadakoa* artzen eztuenak, au bestearen oñafi baita.

Bulda santua artzeko *beartsutzat* artzen dira «beren eta beren etxe-koen jan ta bizigafia beren lanetik ateratzen dutenak, naiz beste zerbait izan edo naiz irabazten duten guzia bizitzeko ez bear izan. Onela bizi diranak ez dute, ba, *Baru ta aragiaren Bulda* artu beafik. Eta Bulda onen esku-bidez baliatu ditezke oiek, kontzientzi-saririk gabe, Buldaz zilegi dan egu-netan aragia jateko ta beste eskubideak artzeko. Eta Aita Santuak ez ditu beartzen eguneroko *Aita gurea* ordeztatera ere, len eskatzen zitzairen.

Kruzadako Bulda beria

Kruzadako Bulda befia bikia da. Bata eliz-gizonentzako, ta efitafentzako bestea. Bientzako emango dan limosna berdia izango da, bakoitzari dagokion motakoetan. Geroztik eliz-gizon aundizkiena bost (5) pezeta limosnaz eta beste gañerakoena irurogeita amabost (0'75) zentimoz. Eta efitafentzakoak berdin bakoitzarentzat bere mañean.

Bulda onek eskubide aundiak dakarzkigu. Induljentzi asko; elizkizunetarako ta ilobirako eskubideak, barkatu zañak barkatzeko ta beñak (botoak) aldatzeko efaztasunak.

Induljentziei dagokienaz bi itz esango ditugu. Induljentzi osoa urtean bi aldiz (bi bider) aitortu ta Jauna artuz (al ba-da); ta, ezin balitz, Pazko al-dian beintzat Jauna artuz eta egun aietan induljentzi ur airabazteko asmotan.

Amabost urte ta amabost berogeiko induljentzia, iru gauza aukeragingo dituen aldioro:

1.^a Elizak beartzen gaituen egunaz landara baru egiten ba-degu, edo egun oietan barutzeraz bearturik egon gabe baru egiñez edo baru ezin egin duenari ofen ordeztapaiz-Aitak edo konfessoreak egiteko ematen duen ordazko egiten bada.

2.^a Pekatuan ba-geunde, artaz biotzetik damutuz.

3.^a Aita Santuaren asmotan aozko otoitz zerbait egiñezkero.

Eñomako Estaziotako induljenziaz bere egunetan irabazten dira eliza bat edo elizatxo baten ikustaldia egiñez, Aita Santuaren asmotan eskatuz eta aitortu ta Jauna artuz induljentzi osoak diranean edo ez-osoak, induljentzi osoak egitea irixteko. Kruzadako bi Bulda artzen ditunak egunean bi aldiz irabazi dezazke induljentzi auker.

Baru ta aragi-uzteko Bulda

Bulda ori artzen duten guziak zilegi dute edozein egun eta otorduetan esnakiak, afaultzak edo afaia jatea. Geroztik baru eguna danean ere, zile-

gi da barua austeko ta apaltzeko esne, esnaki, afaultza edo afaia jatea.

Aragia debekatzen ez dan egunetan, naiz baru izan, nasi ditezke bazkaltzekoan afaia ta aragia.

Urdaï urin edo koipearekin janari edozein gozatu ditekë aragia jatea zilegi eztan egunetan ere edozein otorduetan.

Aragia ta aragi-salda bakafik debekatzen da Garizumako ostiraletan, lau Temporetako ostiraletan eta Pentekostes, Andre Maria edo Agoztuko Ama-Birjiña ta Eguefi aufeko egunetan edo bezperan.

Eguefi-aufeko aragi-uzteko eguna, ordea, orduko Temporetako larunbatera aldatzen da. Geroztik Eguefi aufeko Temporetan ostiraletan aragi-uzteko eguna ta larunbatean aragi uzteko ta barutzeko eguna izango dira.

Bulda befia artuz gero baru egin bear da Garizumako asteazken, ostiral eta larunbatetan, Pentekostes, Andre Maria edo Agoztuko Ama-Birjiña ta Eguefi aufeko egunetan. Azkeneko egun ontaz goien esana gogoan iduki ordea.

Baru egunetan bazkari bat bakafia egin ditekë. Baño goizean baru austekoa edo otamena ta afatsean aparitxoa zilegi dira.

Ilēn Bulda befia

Ilēn bulda befia besteakin batean artu ditekë. Urtearen buruan edo len ildakoen alde artu litekë. Norbait iltzean aren animaren onetan induljentzi osoa eskeñi dezakete ori artu dutenak aitortu ta Jauna artuz eta beraren onetan zerbait otoiñz egiñez. Bi Bulda artzen ditunak bi induljentzi oso eskeñi dezazke ilaren onetan.

Ofa zer eskubideak dituen Buldak.

Intza'r D. An.

Urengo Arte

Ofa or, argazki ofetan, Ubiritxaga deritxon oin-etxea, Bizkaiko Yufe'n dago. Antxe bizi zan nere adiskide Ugalde Jose Maria.

Gaixorik egoen gizajoa. Bere begietako dizdiz motel, eta ezpañetako ifibafe mingotz, eta sudufaren zofoztasun, eta arpegi guztiaeren beren magal baltzean artuta lo eragiten diardula segiken.

—Laster ilgo nazala ba-dakit, esan eustan bein-baten.

Ama Birjiñak bere Seme Jaungoikoagandik dana lortu egikela (zezake-la) ta otoiñz zegiola esanaz, itxaropen izpi gozoa bere biotzera ekafi neuntsan (nion).

Bañā efukiofak erail bear; Gotzonak (Aingeruak) beren laguntzat donokiratu (zeruratu) nai eben-da (zuten-eta). Bai ta laster ludi onetako atsekabe ta laztasunari agur egingo eutson (zion).

—Tamalak? Tamalak, ez! Donoki leyak basesak....! (1)

Eta laño ostean kukuka zebilen ilargiari begiak biurto, eta bere bular bafen-bafenetik urtendako zotin lafi batek goruntz da goruntz egazka igo eban.

Neure betazaletan negar malko bik diz-diz egin eben; berenetan, bafiz,

(1) Naigabeak? Naigabeak ez! Zerura naiak esan dezakek...

zorion alaitasunaren argi zuria agertu zan. Gero... gero, ezpañak tximurtu, begiak lufean josi, berenetan eukazan (zeuzkan) neure eskuak darðaraz trinkatu, eta gaizoak:—Aguf Maria otoitu dagigun—ifibafez eskatu eusten (zidan).

—Ez dautzaguk (etzioagu) beste bein lañopean alkafeekin Ama Birjiñari aguf egingo—jafaitu eban (zuan), otoitza amaitu gendunian.

—Zer dala-ta?

—Ez dakik, ba, aspaldian eriotza neure buru ganian noiz jetxiko egaiz dabilela?

—Gogarte ilunik ez dok erabili bear, mutil. Ogei ta bat urte baño ez,



Bizkaia.—*Yufe'ko Ubiritxaga etxea.* (Galaña-argazkia)

eta noiz ilgo epegabe ago? Beñolako ibilera bařegariak bariztu (befitu) bear doguz (dizkiagu) oraindiño.

Ez eusten (etzidan) erantzun. Ikasle giñaneko egun gozoak gogoratze-ak-edo, bekokiko mafak sakondu dautsoz (dizkio).

Atan (garai) ofetan, gauaren kerizpe ifunak beren izaufetan artu gaituz.

—Jose Mari, gaua safatu dok, eta...

—Bai, agur.

—Noiz arte?

Negafaren antzi estuak biotza marapildu dautsoe-ta (diote-ta) ezin legi-ke itzik egin. Nik ere negaf dagit. Alkaferi begira, ixil-ixilik, gogoa dono- kian (zeruan) eta itxaropen eztitsua biotzean luzaro gelditu gara.

—Noiz arte, Jose Mari?—bařiro itandu dautsat (galdetu diot).

—Noiz arte?... Ufengo arte!...

Jose Mari, mutil ona, adiskide maitagafia, ikasle zolia, kistař sutsua, oyan dago, Ama Birjiña eta beronen Seme Gurutziltzatuaren irũdiari laztan beroak emoten diardu.

—Ez negar egin—dirautso (esaten dio) bere ama minberatuari. Dono- kitik (zerutik) deadar dagizte... Ara, amatxo, ni sekulako pozen nago; poztu zaite zu ere...

Eta begiak itxi, besoak bular ganian gurutzatu, eta betiraun laztana Jaungoiko maiteari emotera (ematera) egaiz igesi dau (egin du).

Ufengo arte, Jose Mari, ufengo arte! gure bizitza egun labur bat baño ez dok-eta.

Galaña.



KANSU, Txinarako Azaroaren 15'an Genova'tik abiatu diran gure Arbizu'ar Felix, Lorka'r Berardo, Garex'tar Bartolome ta Efo'ar Jerardo Aita Agurgafiak.

Lau Misiolari Txina'ra

Asis'ko Prantzisko santuak, Mañuekos'era bialdutako bost Pralek beren siñismenagatik bizia eman zutela ikastean, Prantzisko santua pozez bete omen zan esanez: Oraintxe esan dezaket badiutela bost Praile Txikien egiazkoak. Gertaera ofen befia zabal-tzean, Paduako Antonio Santuak Prantzisko'taŕen soñekoa eskatu ta artu zuan eta berak ere Mañuekos'en bere siñismenagatik bizia eman nai izan zuan.

Onelaxe gertatu izan da beti; ordurik latzenetan agertu izan dira animarik edefenak. Onelaxe dira nere begietan gaurkoan Txina'ra joatea eskatzen duten misiolariak. Or dituzute lau, lauek Naparak, gure Aitaren eta Antonio Santuaren gogo beroz biotzak suturik, eriotzaren bildurik gabe, Jesus'en maitetasunaz bizia emateko prest, Txina'ra dijoazenak.

Ba-dakite auek ango lapur eta gaizkilēn eskuetan, beren antzean ara joandako zortzi misiolariak azkeneko urte ontan bizia galdu dutela; gosete gogofa arkituko dutela an; besterik ezpaltz, neke aundiko bizitza afixkutsu ta latza eraman bearko dutela.

Bizi-opaleen edo martirien siñiste bizia ta Jesus'enganako goi-maitasun sutsua daramate biotzetan, eta oiendako, nekeak irababazia, ta eriotza zeruko ate da. Argatik pozik, oso pozik dijoaz. Zaindu itzazu, Artzai Onaren Ama!



I.—Gure efiko abesti zâr eta gozoak,
Aufeko euskaldunen biotz mamikoak,
Naiko lituzke bildu gure Prailletxoak;
Ortako nasiz dabil mendi ta txokoak.



II.—Oni ta ari galdezka nor dan jakituna,
Ezta aixa topatzea esan nai dituna.
«Gu ez gera kantari, bañan ofa, jauna,
Ortxe eldu da loxe Motx, Ofek bear duna.»



III.—Zu al zera Joxe Motx, kantari aundia?
—Aundia enaiz baño, ni naiz kantaria.
—Bota, ba, kantutxo dat, biotz pozkaria,
Lasai aukera zazu nai dezun airia.



IV.—Mutila ordu batez asi gabe egon zen,
Artean kantu naiez Prailia ifikitzen;
Azkenez «Sursum corda» latz-miña jo zuen
Eta praila gaxoa gutxiz sortu etzen.

BERIAK

Barcelona'ko Misio-Batzaia.

Oraindano España'n egin diran edefenetakoa izan da noski Barcelona'ko Batzaia edo kongreso au. Amaika Gotzai (Obispo) ta Barcelona'ko agintarien aurrean iriki zan Batzaia Agofaren 22'an. Batzaia iriki zuten Aita Santuaren Ordezkoaren eskutitz edo karta edefak lenbizi, gero Barzelonako alkatearen itzaldiak eta azkenean Batzaia onen buru zan Gazteiz'ko Gotzaiaren itzaldi bikain-sutsuak. Itz-egin zan batez ere mixioai laguntzeko Aita Santuak jafita dauzkan elkartasun edefetaz: Sinismenaren Zabaltzea, Aurtzaro Santua ta Pedro Apostolu Santuaren Lana. Agofaren 29'an itxi zan Batzaia. Amabos miña lagun edo bildu ziran eta guztiak txalo ugari bialdu zizkien Batzaia itxitzera etofri ziraran. Efegeai ta bere alabai.

Ufengo egunean jolas-zelaian meza aundia izan zan eta an ere bildu ziran, diotenez, 70.000 lagun gutxi gora bera. Aldare ondoan elege-elegeñak zeuden 17 gotzaiakin. 10.000 edo batu ziran *de Angelis* esaten zaion meza kantatzera.

Beste gertaera edefa izan da Mixiotako Erakusketa (Exposición). An ederi ikusten da gure mixiolariak egiten duten lan edefa. Barcelona'ko Batzar eta Erakusketa onekin azi edefa bota da biotzetan eta ez da noski alperikan galduko; Aita Santuak bere ume guzien biotzetan ikusi nai luken Mixiotako zaletasuna aunditzen juango da noski, katoliko guziak mixiolariak izango diran egun ederetaraño, katoliko bakoitzak mixiolariari nolabait laguntzeko asmo sendoa artuko duen zorioneko eguneraraño.

Liburu gaiztoak sutara

Canada'ko Montreal izena duen eria izango da noski liburu gaiztoai gogofena egiten diena. Aldiz-aldez liburu gaiztoak biltzen dituzte sutara botatzeko; azkenengo aldian 8.000 ta geyago bildu dituzte. Eriko agintariak liburu oyek enparantza edo plaza edefenean efitzeko asmoak zituzten. Beren asmoak ez dituzte aufera eraman, enparantzan bizi ziranak sua beren etxetara joango ote zitzaizen bildura erakutsi zutelako. Eritik kanpoan bada ere, sutara joan bearko dute liburu oyek.

Lepradun esker-onekoak

Mixiolari Prantziskotarak deitzen dituzten monjak lan aundia egin dute 40 urte oyetan Molokai'ko lepradunen artean. Ofenbeste urtetako lan aundi ta edefaz arituak gelditu dira lepradun berak eta monjai nolabait agertu nai izan die beren esker-oneko biotza. Lepradunak beren artean jai batzuek egin dituzte ta jai oyetan al izan duten dirua bildu dute, gero monjai bialtzeko. 1.284 dolar bildu dituzte. Diru au ematean lepradunak, esan dute zein izango litzaken beren gogo; monjak Honolulu'n etxe bat jasotzea, onen atzetik etori edo bilduko zaien diruarekin.

Irlandararak eta zine gaiztoa.

Irlanda'n sartzeko, oso ate estua jafi zaie pelikulai ta onegatik gaiztoak diranak lafi ibili bear. Inglateña'ko pelikula-saltzañeak ezin diote barkatu James Montgomery jaunari. Dublin'en onek ikusi bear izaten ditu pelikulak, jendeari erakutsi baño lenago, onak ala gaiztoak diran jakiteko ta berak atzera bialdu dizkien pelikulak!

«Zergatik ezin dira erakutsi, diote saltzañe oyek, Irlanda'n, Europa'ko beste eritan erakusten diran pelikulak? Pelikulak egiten diranean, Irlandararak zer esango duten begira ez diteke egon». Irlandararak ordea erantzuten dute beste erien antzekoak ez dutela izan nai; onegatik egin dutela ofenbeste odol eraman dien matxinada (revolución) luzea.

Mixiolari batek galdetzen duena.

Tonkin'etik mixiolari batek idazten du esanaz ango probintzi bat, Thanh Hoa izena duena, laster katolikoa izango dala osoa. Orain bertan mila bat ari dira, gure sinismena artzeko, dotriña ikasten; mixiolariak beriz ezin guziaz, bear bezela, begiratu. Afitzekoa da nola biltzen zaizkion igandero, meza bitartean bere itza aditzera, ortarako egin bear duten bide luzeagatik ikaratu gabe. «Nola sortu zaizkio jende oni ofen gogo biziak? galdetzen du mixiolariak. Jende oni, dio berak, begiak iriki zaizkio ta ikusi du mixiolariak egiten ari diran on guzia; gero, katolikoak beren odola ugari eman izan dute emen eta odol ori ez da inoiz alperikan erortzen; batez ere Jaungoikoari zor zaizkio eskerak, bere Elizan sartzeko, jende onen biotzetan ofen gogo biziak sortu-azi dituelako.

1929-Urte guziko Arkibidea

Orialdeak

<i>A. I. M. A., O. M. CAP.</i>	—Zeñen ona den Ama Birjiña!	165
<i>Altuna</i>	Artzai ona	20
<i>Arbelaitz</i>	Eriaren anaiak.	5
»	Mutil maitagafia	37
»	Aita Santuaren itzaldia	81
»	Lanik nagusiena (Dagonileko paper orian).	
»	Euskalduna Fededun? (Ufileko paper orian)	
»	Zabaltzaleak, Zabaltzaleak (Azaroko paper orian)	
<i>Arbizuko Felix A.</i>	Lege ta moral-gizonak gure Ordenan	108
<i>Ar'tar A.</i>	Aita Adoain Agurgafia Euskalefian	145
»	Aita Euskaldun bat Frantzian	173
<i>Arteaga.</i>	Prantzisko Santua ta Ama Birjiña	65
»	Katua ta txoria (Ufileko paper orian)	
»	Iru bideak (Azaroko paper orian).	
<i>Ataungo Bonifazio A.</i>	Andra Marirenganako egiazko jaiera.	41, 69, 149
»	Igo zaitezte maladi zuritik	98
»	Afate'ko Andra Mari.	200
<i>B.</i>	Camporosso'ko Prantzisko Maria Zorionekoa.	
	Kaputxino befi bat aldarean	130
<i>B. B.</i>	Txinako kontuak (Ufileko paper orian)	
<i>Bach (J. S.)</i>	Ongi etofi	200
<i>Béchaud (H. D., O. P.)</i>	Katoliko befi bat: Andre Sigrid Undset	118
<i>Begi-beltx</i>	Kaputxinoen Ikastetxe Serafindafa Altsasu'n	21
»	Mejikitik	60
»	Kaputxinoa.	84
»	Jesusen Biotzari	135
»	Ori ustekabetako soldadua.	164
»	Jesus Txikiyari.	196
<i>Donostiar Gabriel A.</i>	¡Euskaldun Gotzai Agurgafia! ¡Egino'tar Jose	
»	obispo Jauna!	26
»	Euskalefi maitea!	58
<i>Donostiar J. And. A.</i>	Ubi caritas et amor.	8
»	Coronula Stellarum duodecim B. M. V.	153
<i>Elduayen A.</i>	Alleluia (O filii et filiae).	56
»	Ama Birjiñari otoitza.	72
»	Zu gabe!	96
»	Zoruna...?	120
»	Eguzki anaiaren eresia (I)	136
»	Eguzki anaiaren eresia (II).	184
<i>Ereñotzu</i>	Abiña'ko Antonio Deuna	158
<i>Galaña.</i>	Ufengo arte	204
<i>Goñi'tar Julian</i>	Jesusen Adiskideak (Neguileko paper orian)	
<i>Idazleak</i>	ZERUKO ARGIA ta Euskal-efia.	1

<i>Idazleak</i>	<i>Zeruko Argia</i> 'ren ongileak	101
»	Eñarentzako Liturgia	161
<i>Intzar Damaso A.</i>	Aitortza.	9
»	Azterpena (esamiña)	33
»	Biotz-damua	67
»	Liburu beñiak: <i>Homenaje a D. Carmelo de Echeagaray</i> —(Ofileko paper orian) . .	
»	Kaputxinoak siñesgaben misioetan . . .	102
»	Ontzeko asmoa	139
»	Aozko aitorpenaren eginbidea	154, 170
»	Aitortza ondoreko ordaña	181
»	Bulda Santua	202
<i>Intza'r Lorenzo A.</i>	Lorea ta odeia	116
<i>Iribartegi'tar Akilino</i>	Peru'ko beñiak	137
<i>Ispira'ko Ignazio M.^a</i>	Amerika—Brasil	92
<i>Izengabe</i>	Beñiak (ilabetero)	
»	Gotzai napafak	23
»	Ikasi! Ikasi! . 30, 43, 78, 126, 142, 157, 190, 207	207
»	Gora Aita Santu Efegea!	35
»	Irakurgai onen eguna 1929'an	39
»	Egaztiak efege aukeratu naiean (Ofileko paper orian).	
»	Gure Santuak.	88
»	Napafoa-Kantauri-Aragueko Probintziaren bizitza.	95
»	Ikasi! Ikasi! (Uñileko paper orian).	
»	Umore ona edo biotz ona? (Azaroko paper orian.)	
»	Ikasi! Ikasi! (Neguileko paper orian) . .	
»	Lau misiolari Txinara	206
<i>Jauregi'tar Luis</i>	Nere lagun zar bateri.	4
»	Spes unica	36
»	Legortea.	163
<i>Kalparegi</i>	Regnavit a ligno Deus	49
<i>Legateko Artzaia</i>	Pedro Mari Amerikanoa.	54, 124
<i>Lizara'ko Ilari A.</i>	Belengo estalpea (eresia)	24
»	Agur Maria »	166
<i>Luxemendi</i>	Gure Deunak	107
<i>Maizenea</i>	Artzaiaz jantzirik.	71
<i>M'ar F. A.</i>	Angosto'ko Ama Birjiña (Araba'n) . . .	7
<i>Oñoki</i>	Oñoak. Txitoak ateratzea (Ilbeltzako paper orian).	
»	Oñoak. Afautzak aztertzea (Otsaileko paper orian).	
»	Oñoak. Txitoak oñokin azitzea (Joñailko paper orian)	
»	Oñoak. Txitoak txitakiñaz ateratzea (Garañailko paper orian)	

<i>Oloki</i>	Oloak. Txitoak txitakiñaz ateratzea (Uz- taileko paper orian).	
»	Oloak. Olaxkoak irentzea edo kapoitzea.	
»	(Dagonileko paper orian)	
<i>Osinburu</i>	Biotz aundia (Dagonileko paper orian).	
<i>Otermin</i>	Euskaldun Kaputxinoak Ameriketan.	299
<i>Sabiaga</i>	Menpekotasun gozoa	153
<i>Tolosa'ko Marzel. A.</i>	Kandelari eguna	17
»	Brindis'tar Lorenzo Deuna.	113, 141
»	Il'en eguna	177
»	Prantzisko Xabier Deuna	193
<i>T. Perurena</i>	Zoruna...?	120
<i>Urtsuya</i>	Liburu befiak: <i>Método práctico del Eus- kera</i> por Miguel de Inchaurren (Ilbelta- ko paper orian).	
»	Belengo estalpea	24
»	Zu gabe!	96
<i>Uiarte</i>	Kaputxinoak	86
<i>Villava'ko Tarsizio A.</i>	Misioetatik	61, 74
»	Txina'ko befiak	187
<i>X., O. M. Cap.</i>	Ainbat edertasun....	40
<i>Yuretar Julian A.</i>	Txinatik.	11, 28
»	Intza'r Damaso Agurgafiari.	44
»	Txina'ko kontuak	74
»	Pakea Txina'n	122
»	Txinatafak eta dirua	133
<i>Zendoya</i>	Kayolako ufesiñol gaxoa!	14
<i>Zubigar</i>	Udalen beltza.	52
»	Udabefi goiza.	117
»	Udazkenean	148
»	Nere kabia.	180

Edergariak

Eguefi ta Urte befi onak!	2
Jesusen jaiotza.	3
Txinako kristauak	12
Leitzako neskatoak, beren Irakasle Monja Irugafendar Kapu- txinakin.	13
Kayolako ufesiñol gaxoa!	14
Jesus, Maria ta Jose.	19
Kaputxinoen Ikastetxe Serafindafa Altsasu'n	21
Altsasu'ko Kaputxino Irakasleak beren ikasleekin	22
Egino J. guziz Agurgafia	27
Ikasi! Ikasi!	30
Gora Aita Santu Efegea!	35
Seluak Aita Santu ta efegeren irudiekin.	39
Ikasi! Ikasi!	43
Mgr. Salvator P. Walleser.	44
Txina'ko kristau-ume sail bat	45

«Artu ta jan zazue, au da nere gorputza»	51
Ni naiz Artzai Ona	55
Txintxow'ko apaizgaiak.	62
Egaztiak efege aukeratu naian (Ofileko paper orian)	
Loreak eskeintzen	67
Kansu-Txina'n—Langileak jatorduan	75
Txina'ko ama kristaua bere aurtxoarekin	76
Ikasi! Ikasi!	78
Sigmaringa'ko Fidel eta Leonisa'ko Jose Doneak	83
Zazpigafen Klemente Aita Santua	86
Zortzigafen Urbano Aita Santua.	88
Gure Santuak	90-91
Kaputxinoak kutsutuei laguntzen.	92
Maria Sortzez-Garbiaren babesean.	99
Tafalla'ko Jabier Aita, Mutilonak jana	103
Tafalla'ko Manuel Aita, Mutilonak makilka ila	104
Fustiñana'ko Pedro Aita iltzean	105
Kaputxinoak España'n argitaratzen ditugun aldizkariak	113
Brindisi'ko Lorentzo Santua Belgrado'ko guduan.	115
Txina'n. —Lapur bat burua mozturik	123
Zugan, Jauna, daukagu uste osoa	125
Ikasi! Ikasi!	126
Camporosso'ko Prantzisko Anai Kaputxino Zorionduna	130
Loyola'ko Iñaki, Jesus'en Lagundiaren Sortzale donea	131
Irurita'ko inguruak	134
Lekaroz'ko efiā.	134
Legateko Gurutzea	134
Ikasi! Ikasi!	142
Aita Adoain Agurgaria Lastaola'n	147
Gartzain (Baztan)	148
Asis'ko zauritua gozazten	151
Legafe'ko uberka (Afasate'n)	155
Afasateko osiña	156
Ikasi! Ikasi!	157
Ama Birjiña Efosariokoa.	163
Beñoeta (Baztan)	164
San Pedro auzoko zubia (Oñati'n)	166
San Pedro auzoko zubia (beko aldetik ikusia)	171
Lafañaga basetxea (Oñati'n)	172
Carcassonne'ko Españafak Lourdes'en	173
Ai txori gaxoak!	174
Ikasi! Ikasi! (Ufileko paper orian)	
Jesu, nostri miserere	179
Leaburuko eliza ta bertako Apaiz Jauna	182
Leaburu'ko eskola befiā.	183
Mgr. Froewis, Praef. Apost.	187
Afasate.—Garagartza auzoko txorondo bat	189
Ikasi! Ikasi!	190
Ikasi! Ikasi! (Neguileko paper orian)	
Xabierko Frantzisko Santua	195
Txilen.—Rancagua'ko Gotzaia aldare afean.	198
» Lenengo ariā bedekatzen.	199
Yufe'ko Ubiritxaga etxea	205
Txina'rako lau misiolari	206
Ipuia	207
Asmakizunak (Neguileko paper orian)	